

## **UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN 2013KO DIRU-LAGUNTZEN ESLEIPENAK**

### **Iragarkia**

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak 2013ko azaroaren 8an egindako bilkuran, hurrengo diru-laguntzak emateko deialdia onartu zuen:

Mankomunitateko kide diren udalei, 2013. urtean euskara sustatzeko hainbat programa eta jarduera egitearren, diru-laguntzak emateko deialdia.

### **AURREKARIAK**

#### **1. Diru-laguntzaren helburua**

2014ko urtarrilaren 21ean, BAOan argitaratutako oinarrien helburua zen Mankomunitateko udalek euskararen normalizazioan mankomunitateak ematen dituen zerbitzuen bidez garatzen direnez gain bestelako normalizazio jarduera eta ekintzak sustatzeko eman nahi diren diru-laguntzak arautzea. Bereziki, UEMAren helburuekin bat egiten dutenak.

#### **2. Diru-laguntzen onuradunak**

Diru-laguntza hauek jaso ahalko dituzte, beste administrazioetatik diru-laguntzarik jaso ez duten, eta Mankomunitateari ordaindu beharreko kuota egunean duten udalek.

### **EGON DIREN ESKAERAK**

Diru-laguntza hauen iragarkia BAOan argitaratu zenetik, honako udal hauek egin dute laguntza jasotzeko eskaria, oinarriak zehazten zuten epean eta lekuan:

- Etxarri-Aranazko Udala
- Araizko Udala
  
- Arantzako Udala
  
- Larraungo Udala
  
- Etxalarko Udala
  
- Goizuetako Udala
  
- Lesakako Udala

- Igantziko Udala
- Leitzako Udala
- Aresoko Udala
- Berako Udala
- Basaburuako Udala

### **DIRU-LAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK**

Hauexek dira, diru-laguntzak emateko oinarriek zehazten zituzten irizpideak:

1. Diru-laguntza emateko eta zenbatekoa zehazteko, alderdi hauek izango dira kontuan, besteak beste:

— Aurkeztutako programen eta ekintzen kopurua (10 punturaino).

— Aurrekontua: Erakundearen aurrekontua eta euskara aurrekontuaren proportzioa. (20 punturaino).

2. Baldintzak betetzen dituzten udalek eskuratu ahal izango dute gehienezko diru-laguntza ez da inoiz izango gastuen %100 baino handiagoa eta ezta ere udal horrek UEMArri egiten dion kuota ekarpena baino handiagoa.

3. Diru-laguntzen emakida gehienez dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren mugaraino egingo da, beraz, ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, banaketa proportzionala egingo da UEMArri kuotak zehazten dituen biztanle tarteen arabera.

### **AURREKONTU PARTIDA**

Diru-laguntzak ondorengo atalean oinarrituta eskatu ahal izango dira. Atalak gehienezko kopuru hau izango du: 20.000 euro.

Beste administrazioetatik laguntzarik jasotzen ez duten udalentzako diru-laguntza:

Partida: 409.451.01

### **EBAZPEN PROPOSAMENERAKO OINARRIAK**

Oinarrietan zehazten ziren irizpideak kontuan hartuta, hiru kontu hauek hartu dira aintzat esleipen proposamenak egiterakoan:

- Euskara aurrekontua eta udalaren aurrekontu osoaren proportzioa
- Euskara sustatzeko aurkeztutako ekintzetan gastatuko den diru kopurua
  
- UEMari egiten dioten diru ekarpena

Lehen bi irizpideak izan dira puntuagarriak modu honetan:

\* Aurrekontuen proportzioa (20 puntu):

- $0 < X < 2$ .....5 puntu
- $2 < X < 4$ ..... 10 puntu
  
- $4 < X < 6$ ..... 15 puntu
- $6 < X$ ..... 20 puntu

\* Ekintzetarako diru kopurua (10 puntu):

- $X < 2.000$ .....2 puntu
- $2.001 < X < 4.000$ .....4 puntu
  
- $4.001 < X < 6.000$ .....6 puntu
- $6.001 < X < 8.000$ .....8 puntu
  
- $8.001 < X$ .....10 puntu

Horiek horrela, hona hemen puntuazioen taula:

Udala	1. irizpidea	2. irizpidea	Puntuak guztira	Laguntza kopurua
ARESO	5	8	13	1.214,85
ARANTZA	10	6	16	1.495,2
ARAITZ	20	6	26	2.429,7
IGANTZI	15	6	21	1.962,45
ETXALAR	10	6	16	1.495,2
GOIZUETA	10	6	16	1.495,2
BASABAUR	5	10	15	1.401,75

UA				
LESAKA	10	6	16	1.495,2
LARRAUN	15	6	21	1.962,45
ETXARRI- ARANATZ	10	4	14	1.308,3
LEITZA	10	10	20	1.869
BERA	10	10	20	1.869

Guztira 20.000 euroko diru poltsa egonik udal guztien artean banatzeko, eta guztira udalek 214 puntu lortuta, puntu bakoitzari 93,45 euro dagozkie. Hori horrela, puntu guztiekin zenbateko laguntzako jasoko duten atera da. Guztira, 19.998,3 euro banatuko dira.

## 9. Errekurtsoak

Esleipenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio esleipen hau UEMAREN webgunean argitaratzen den egunetik (2014ko maiatzaren 28tik) kontaktzen hasita 15 eguneko epean.